Ez bakarrik musika!

Vienako Ladyfestak, orain arte

Iris Hajicsek

Izan al zara inoiz Ladyfest batean? Ez? Orduan ez duzu oraindik Ladyfest ezagutzen!
Izan al zara inoiz Ladyfest batean? Bai? Orduan ez duzu oraindik Ladyfest ezagutzen!

Ladyfest komunitateetan mugimendu handia dago: jaialdiak aldatu egiten dira tokian tokiko eta urte batetik bestera. Mundu osoan jaialdi bakoitzak egoitza berriak, ikuspegi berriak eta gauzak egiteko modu berriak dakartza; eduki berriak, eztabaida berriak eta borroka berriak; arazo berriak eta, jakina, diferentzia berriak. Gauza bera gertatzen da Vienako Ladyfest honetan. 2004, 2005 eta 2007ko hiru jaialdiak oso desberdinak ziren bata bestetik; jaialdi bakoitzean jende talde desberdinak lanean aritzeak segurtatu egiten du aldatzea.

Historia bat da hau. Vienako lehen Ladyfest egoitza autonomoetan gertatu zen batik bat. Lau egunez emakumeen botere berreskuratzean zentratu zen, komikiak, gitarra musika eta erakusketak barne. Hurrengo, 2005eko, Ladyfesten gai eztabaidatuetako bat queertasuna izan zen ("bost axola zure generoa!"). Hiru egunez eta leku gehiagotan, performance artean (drag performanceak barne) eta queer filmetan zentratu zen. 2007an egoitza alternatibo komertzial batera pasatzera ausartu ginen, eta Ladyfest handitu genuen eszenatoki ireki batekin eta musika elektronikoarekin. Jaialdi hark bost egun iraun zuen. Lady-txirringa paseo feminista publikoa aurkeztu genuen Vienan barrena; literatur agerpenak eszenatoki handira eraman genituen; eta sexuaren inguruko eztabaida zabalak bultzatu genituen Ladyfest Sexp@rty zabal eztabaidatutakoaren ondoren.

Asanbladetan oinarritutako prozesuetatik gai baten inguruko lan-taldeetaraino, antolamendu egitura ere aldatuz joan da urte batetik bestera. 2004an eztabaidatu genuen ea taldea jende transgeneroarengana zabalduko ote zen (trans-hartzailea izatea erabaki zen). Hurrengo urteko antolatzaileek eztabaidatu zuten ea gizonezkoak onar zitezkeen babesle moduan (ezetz erabaki zen: jendea babesle moduan besterik ez onartzeak egitura hierarkikoetara eramaten du). Iaz eztabaidatu geunen ea gizonezkoek era aktiboan parte har ote zezaketen kolektibo antolatzailean ("Zergatik ez, norbaiti interesatzen bazaio?").

Izan al zara inoiz Ladyfest batean? Ez? Orduan ez duzu oraindik Ladyfest ezagutzen!
Izan al zara inoiz Ladyfest batean? Bai? Orduan ez duzu oraindik Ladyfest ezagutzen!

Ladyfest denak desberdinak dira! Ladyfest Vienna zertan den zeure kabuz aurkitzera gonbidatzen zaitugu.

www.ladyfestwien.org